

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezten.

1. Erakundearen izena:	NEIKER. Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea
2. Sektorea:	Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailera atxikitutako erakundea.
3. Langile kopurua:	190
4. Webgunea:	https://neiker.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Euskadiko nekazaritza-abeltzaintza eta basogintza sektorearentzat egiten dugu lan. Sektorearen lehiakortasuna hobetzen, gure ingurumena zaintzen, gure espezie eta arraza autoktonoak kontserbatzen eta elikagaien segurtasuna bermatzen laguntzen dugu. NEIKERek zeregin horiek gauzatzen ditu 1851n sortu zenez gero, nazioartean aintzatespena eta kualifikaziorik handiena duen profesional talde baten lanari esker.</p> <p>Gure ehun produktiboari eta gizarteari zerbitzua emateko borondatea duen erakunde publikoa gara, eta bikaintasunean oinarritutako kudeaketa eredu baten alde egiten dugu, zeinaren funtzionamendua nazioartean aitortutako kalitate irizpideen arabera arautzen den.</p> <p>2019an, BRTA Euskadiko Partzuergo Zientifiko-Teknologikoan sartu zen NEIKER. BRTAren helburu nagusia lankidetzaren dinamika bat ziurtatzea da, Euskadik dituen erronka teknologikoei eta industrialei erantzuteko eta nazioartean duen posizionamendua hobetzeko.</p> <p>Lantalde honen gaitasunari esker, ezagutza eta soluzio berritzaile eta transferitzeko modukoak sortzen dira, eta horiek balio erantsia eman eta hobetu egiten dute nekazaritzako elikagaien eta basogintzaren sektorearen lehiakortasuna.</p> <p>Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailak ezarritako helburuekin bat etorritik egiten du lan NEIKERek. Hauek dira helburuak: ingurumenarekiko eta gure ingurunearen iraunkortasunarekiko ahalik eta errespeturik handiena mantentzea, eta gure ingurunearen garapen ekonomiko eta sozialari modu aktiboan laguntzea.</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Eva Ugarte
Helbide elektronikoa:	eugarte@neiker.eus
Telefonoa:	

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	NEIKER. Hizkuntza-irizpideak egoera komunikatibo ezberdinetarako
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Paisaiaren Hizkuntza-irizpideak (Hlak) 2014. urtea geroztik ezarrita daude NEIKERen. Eta 2019. urtea geroztik jendaurreko ekitaldietarako irizpideak. Hauek guztiak Administrazio eta Komunikazio arloetako kideen artean zabaldu ziren eta hauen artean ongi errotuta daude. Hala ere, irizpide hauek adostu zirenean ez ziren langile guztien artean zabaldu, ez eta jarraipenerako adierazlerik adostu ere. Orduz geroztik ez da jarraipenik egin.</p> <p>Denboran zehar, egoera komunikatibo ezberdinetara egokitutako Hlen beharra somatu da eta hauek langile guztien artean egoki zabaltzea beharrezkotzat jo da.</p> <p>Horrela, Euskara Batzordean Hlen lanketa sakona egin da eta ondorioz, dokumentu ezberdinak sortu dira:</p> <ul style="list-style-type: none">-Eusko Jaurlaritzak onartutako Hizkuntza-Irizpideak oinarri hartuta NEIKEReko egunerokotasunera egokitzen diren Hlen dokumentu orokor eta luzea-Egoera komunikatibo ezberdinetara egokitzen diren fitxak:<ul style="list-style-type: none">*Kudeaketa*Zerbitzu-hizkuntza*Zientzia eta dibulgazioa euskaraz*Jendaurrekoak*Lan-hizkuntza*Kanpo-harremanak <p>Euskaraz sortutako dokumentu hauek gaztelerara itzuli dira. Ondoren, barne-komunikazioen bidez lankide guzti-guztiei zabaldu zaizkie dokumentuak eta denboran zehar komunikazioa are eta eraginkorrago izan dadin lankide zehatz batzuekin lanketa berezia egitea aurreikusi da.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

Hi orokorrak, kontsultarako dokumentu bezala diseinatu, 14 orrialdeko dokumentu luzea da. Euskaraz sortu den dokumentua da eta ondoren gaztelerara itzuli da. Maketatu eta itxura erakargarria eman zaio dokumentuen zabalkuntza eraginkorragoa izan dadin.

Hlax. Dokumentu orokorraren azala



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Hlak. Egoera komunikatibo ezberdinetarako fitxa laburrak, gomendio eta aholkuekin.

NEIKER
MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

2022 **Bikain**
euskararen
kautabe zinatzauna
certificado de entidad
en la gestión lingüística

**HIZKUNTZA-
IRIZPIDEAK
KUDEAKETA**

neiker.eus

NEIKER
MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

**EUSKARAK
365 EGUN**

**HIZKUNTZA-
IRIZPIDEAK
ZERBITZU
HIZKUNTZA,
HERRITARREKIKO
HARREMANAK**

neiker.eus

NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

**HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK
KUDEAKETA**

XEDEAK:

- Euskararen eta hizkuntzen kudeaketa NEIKERen kudeaketa orokorrean inbertituz eta orratzuz.
- Gure hizkuntza ofizialen normalizazioa eta erabilera berdintasunaren printzipio nagusia zabalduko dituz lanbide gutxienez.

NOLA LORTU:

Hizkuntza-politika eta lidergoa

- NEIKEReko Zuzendaritza Nagusia da hizkuntza politikaren liderra. "Zuzendaritza eredu" labepean hizkuntza ofizialen normalizazioaren eta erabilera berdintasunaren printzipio nagusia zabalduko dituz lanbide gutxienez.
- Zuzendaritza batordeko kide batzuk ere gisa batordeko ardurak dira Euskara Batzordean.

Euskara Batzordea (EB)

- NEIKERen eskain eduan Euskara Batzordea dugu; Zuzendaritza eta Euskararen Hizkuntza Zuzendaritza, Zerbitzu orokorretako eta I+D+i lanbide ezberdinetako kideekin. Euskararen dimentsioak Nagusi eredu bategi, koordinazio lanak eta euskararen arloko hainbat ardurenkin.
- Plan Estrategikoa, Hizkuntza Irizpideak, Kudeaketa eta Erabilera planak kudeatzen, sustatzen eta jarraitzen egitea daude EBren arduren artean.

Langileak eta Euskararen erabilera sustatzeko estrategia

- Euskararen kudeaketaren inguruko informazioa langile gutxienez artean zabalduko da (barne-komunikazioak, intraneta) eta baita kanpora begira ere (webgunea...). NEIKERek euskararen sustatzeko erabaki estrategikoa hartu du eta horrela zabalduko du.
- NEIKERek herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar dituela eta horretarako NEIKEReko lanbideak implikatzen behar duela barne-komunikazioen bidez zabaldu eta gogoraraziko du.
- Langile heldu-berriei laguntza zailen Warrera eskuliburuaren euskarari bere lekua emango zala eta Warrera liguistikoaren protokoloa onartuta abian jarriko da.

Gaitasun linguistikoa

- Euskararen Dekretuak NEIKERi eragilego diren neurrian, eskaintzen lagilek betetzeko Ekitatza plaza ezarriko da.

Hizkuntza klausulak

- Zerbitzu eta lan-hizkuntzaren zerbitzuak duten hornitzaile eskubideekin eta lehenetsien labepean egitea zuzentzen duen berritasun eta koordinazioaren euskararen irizpide bezala kontatu behar da.

AHOLKUAK:

- Barne-komunikazioen bidez eta Intranetaren eskutia egongo da euskararen kudeaketaren inguruko informazioa. AdI egoi.
- Zabalduzaren bati izatez gero, galdetu Euskara Batzordeko kideekin.

GOGOAN IZAN:

- NEIKERen besebekerria da herritarren eskubide linguistikoa bermatzea eta herritarren lanbide gutxienez implikatzen behar du.
- NEIKERen eskaintza Euskara Batzordea dugu; zuzen erabaki partzialak izan nahi baduzu, jarraituz harremanetan bertako kideekin.

NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

**HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK
ZERBITZU HIZKUNTZA,
HERRITARREKIKO HARREMANAK**

XEDEA:

- Herritarrek hizkuntza eskubideak dituzte eta NEIKERi eta bertako lanbide gutxiok dagokigu herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea.

NOLA LORTU:

Herritarrekiko idatzizko harremana

- Herritarrenzati eskuragarri dauden tipimaki ofizialak, idatzizkiak, txantiloiak, argitalpenak, protokoloak edo antzekoak euskaraz eta gaztelan idatzita egongo dira.
- Laborategiko zerbitzu analitikoaren txostenetan hiru txosten mota landuko dira:
 - euskararen hautua, euskararen hautua egitea duten herritar eta adierazten dituzten;
 - elebitan, Euskadiko herritar eta bezeroentzati eta modu orokorrean bidaltzen den kasuetan eta gaztelan; euskararen hautua egitea duten Euskaditik kanpoentzati.
- Webgunean agertzen den info@neiker.eus helbidera helitzea diren kontuak ematerakoan:
 - Euskaraz sartzen diren kontuak euskaraz erantzuniko dira, gutxienez;
 - Eta gaztelan sartzen diren kontuak gaztelan edo elebitan erantzun eta hurrengoan euskaraz egiteko aukera zuzentzen da.

Herritarrekiko ahozko harremana

- NEIKEReko langileek euskaraz esango dituzkigu lehen hitza eta lehen esaldia herritarri, eta ondoren, herritarrek aukeratutako hizkuntza ofizialaren jarraituko dugu.
- Herritarrek euskaraz ez dakien langile bati euskaraz jardun nahi duela adierazten badi, NEIKEReko langileak:
 - arloan dituen beste kide bati laguntza eskatuko dio, posible den gaztelan;
 - harremanaren arrazoiak idatziz zuzentzen eskatuko dio herritarri;
 - inon ez du herritarri hizkuntza aldatzea eskatuko.

Hizkuntza eskubideen urraketa gertatuz gero, herritarri kexa jartzeko mekanismoa jakinaraziko zait: ELEBIDERA jo dezakeela.

AHOLKUAK:

- Herritarri egin duen hizkuntza ofizialaren hautuan ahoz erantzuteko gaitasunik ez badugu, laguntza eskatu edo harremana idatziz egitea eskatuko dugu.
- Euskara Batzordeak abian jarri duen LAGUNTZA KANALA erabili dezakegu laguntza eskatzeko.

GOGOAN IZAN:

- NEIKEReko langile gutxiok herritarren hizkuntza hautua eta hizkuntza eskubideak bermatu behar ditugu.

**KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA



**HIZKUNTZA-
IRIZPIDEAK
ZIENTZIA
ETA HONEN
DIBULGAZIOA
EUSKARAZ**

neiker.eus



**ZIENTZIA ETA HONEN
DIBULGAZIOA EUSKARAZ**

XEDEAK:

- Euskara eta ezagutza, beharlarako elementu garrantzitsuak biak lan egitea jarraitzea.
- Lehen sektorearen arloko ikerkuntzaren euskarazko dibulgazio zientifikoa sustatzea.
- Euskarazko dibulgazio zientifikoa egiten duten beste kideekin eta erakundeekin lankidetzan sustatzea.
- NEIKER-Sari berezia eta bestelako errekonozimenduak gauzatzea lehen sektoreko euskarazko ikerkuntza lan onenetan.

NOLA LORTU:

NEIKERek badu dibulgazioa euskaraz egiteko konpromiso soziala. Horretarako, zientziako arlo zabalean artzen diren erakundeekin elkarlankidetzan eta hitzarmenak izatea garrantzitsua da. NEIKERek badu, adibidez, Elhuyar Fundazioarekin sinatutako hitzarmena 2016 urtea geroztik, 2022ra arte eguneratu dena. Hitzarmen horren barruan jasota dago CAF-Elhuyar sarrietan NEIKER-Sari berezia egotea, lehen sektorean egindako dibulgazio lan onenentzat.

NEIKERek eta, bereziki, bertako aditu euskaldunen inplikazioak zientziaren dibulgazioa hainbat ekintzetan parte hartzen dute, esaterako, jardunaldi eta mahai-inguruetan. Noizean behin, euskara hutsean egindako artikuluko tekniko-zientifikoa eta dibulgatibak argitaratzea dira. Eta euskara hutsean sortutako podcast, bideo eta horrelakoak sortzen dira baita ere. Azken horren adibide da IKUSGELA proiektua, mendus uirtzeko heburu didaktikoa duten bideoekin. Horretan, NEIKERek eta hainbat adituk ingurumenari buruzko bideoa sortu egin dute.

Hosetarako guztirako, NEIKERen dauden aditu euskaldunen inplikazioa behar da eta abian jartzen diren dibulgazio-proiektu ezberdinetan euren parte-hartzea behar du.

AHOLKUAK:

- Euskarazko dibulgazio zientifikoa garrantzia ikusita, horrelako proiektu batean parte-hartzera gonbidatzen zaituzten hurrengoan kontuan hartu ezazu zure alia jartzeak duen garrantzia.
- Barne-mintzietan euskarari gero eta presentzia handiagoa ematea eta NEIKERen txosten teknikoetan euskarari presentzia eta bere leku ematea katea, surretarausok ikusten josteko praktika ona da.
- Idatzizko dibulgazioa testuak sortzen laguntzeko Euskara Batzordeak abian jarri duen LAGUNTZA KANALA erabili dezakezu.

GOGOAN IZAN:

NEIKEReko kideek, erakunde publiko bezala, betekizun eta ardura sozialak ditugu eta euskararen normalizazioan eredu izatea dagokigu, baita lehen sektorean egindako ikerkuntzaren dibulgazioa eta lortutako ezagutzaren transferentzian ere.



**HIZKUNTZA-
IRIZPIDEAK
JENDAURREKOAK
ETA BARNE-
EKITALDIK**

neiker.eus



**JENDAURREKOAK
ETA BARNE-
EKITALDIK**

XEDEAK:

- Entzuleriaren ulermena bermatuta dagoela, euskarari lehentasuna eta ahalik eta presentzia handien ematea.
- Euskararen presentzia ongietorri eta agurrera mugatzea ekiditeko ekintzak abian jartzea eta mamizko informazioa euskaraz ere zabaltzea.
- Jendaurrekoetan euskararen normalizazioaren eta erabilera-berdintasunaren eredu izatea.

NOLA LORTU:

- Sistematikoki eta diseinu fasetik hasita euskara kontuan hartuko da; aldez aurretiko komunikazioak, izen-ematea, asebetetze-inkestak eta horrelakoak euskaraz edo elebitan izango dira.
- Ekitaldi ekitaldi zehaztuko da, eta hizlariak eta entzuleria kontuan hartuta neurriak zehaztuko dira.
- Hizlari euskaldunak eta elebitasun orekatua bilatuko dira. Hizlariak euskaraz ez dakitenean, idatzizko euskarria euskarari bere lekua ematea eskatuko zaie, posible den neurrian.
- Barne-ekitaldietan ere euskara eta gaztelania erabiliko dira. Hizlariak euskaraz ez dakitenean, idatzizko euskarria itzultzeko aukera emango zaie.
- Barne-mintzietan euskararen presentzia geroz eta handiagoa izatea sustatuko da. Barne-mintzietan, euskararen erabilera handiagotzeko euskarra hutszeko jaiok ere sustatuko dira.
- Ahal denean, herritarrei emandako jendaurrekoak euskara hutsean izango dira.

AHOLKUAK:

- Euskara Batzordeak abian jarri duen LAGUNTZA KANALA erabili dezakegu laguntza eskatzeko.

GOGOAN IZAN:

NEIKEReko kideek, erakunde publiko bezala, betekizun eta ardura sozialak ditugu eta euskararen normalizazioan eredu izatea dagokigu, besteak beste.



**HIZKUNTZA-
IRIZPIDEAK
NEIKER
BARNEKO LAN
HIZKUNTZA**

neiker.eus



**NEIKER BARNEKO LAN
HIZKUNTZA**

XEDEA:

- NEIKER barneko kideen artean ematen diren lan harreman tekniko, formál eta informaletan gure hizkuntza ofizialen normalizazioa eta erabilera-berdintasuna sustatzea, bai ahozko zein idatzizko harremanetarako.
- NEIKER barruan, gure lanari lotutako hizkuntza-paisalaren elementuetan euskararen presentzia handi-
gotzea.

NOLA LORTU:

- NEIKERen izenean bidaltzen den informazio orokorra eta langile guztiei paperean zein posta elektronikoz bidaltzeko komunikazioak euskaraz eta gaztelaniz egongo dira, euskarari lehentasuna emanez. Horre-tarako, bantziolak euskaraz eta gaztelaniz gero eta gehiago egitea sustatuko da. Baita e-postak idazter-
oian ere.
- Gure apaletako fitxeroak eta barne-paisala osotzen duten beste elementuetan ere euskarari gero eta leku handiago emango zaio, software eta balabide informatikoak ere kontuan hartuta.
- Lan-bilera teknikoak, laneko elkarrizketa ez teknikoak eta elkarrizketa informálak (kafe orduko elkarrizketak...) euskaraz izatea sustatuko da; gero eta gehiago, gero eta gehiagorekin.
- Pertsonen kudeaketa arloan, hasiera hasieratik lankide guztioi argi utziko zaigu NEIKERen euskaraz duen garrantzia. NEIKEReko langileen hitzarmenean jasota daude euskaraz ikasteko diru-laguntzak eta hauek aprobetxatzeko sustapen kargainak egongo dira.
- NEIKEReko formakuntza planetan euskarari bere lekua ematen zaio eta ahal dela, ikastaro orokorrak euskaraz antolatuko dira.
- KORRIKA, EUSKARALDIA, MINTZAPRAKTIKAK, EUSKARAREN EGUNA eta bestelako ekintzetan langileen parte-hartzea sustatuko da, euskararen erabilera handiagotzeko.

AHOLKUAK:

- Langile hitzarmenean jasota dauden diru-laguntzak aprobetxatu zure ezagutza maila handiagotzeko. Horrekin, euskarazko lan harreman gehiago egotea posible izango da.
- Eskura ditudun ITZULTZAILE AUTOMATIKOAK erabili idatzizko barne harremanetan euskararen presentzia handiagotzeko.
- EUSKARA BATZORDEAK abian jarri duen LAGUNTZA KANALA erabili testu laburren orrazketarako laguntza eskatzeko.

GOGOAN IZAN:

- NEIKEReko langileen artean ezagutza erabilera baino altuagoa da. Gaitasun horiek lantzea normalizazioaren bidea erraztu egongo duela kontuan hartu.
- NEIKERen bertan euskaraz maila altua duten lankide asko daude, saia gaitzen horiekin euskaraz elkar komunikatzen, denon hobeebarrez izango da eta.



**HIZKUNTZA-
IRIZPIDEAK
KANPO
ERANKUNDEEKIN
HARREMANAK**

neiker.eus



**KANPO ERANKUNDEEKIN
HARREMANAK**

XEDEA:

- Administrazioarekiko, erakunde pribatuakiko eta bestelako erakundeekiko, aliatuekiko eta abarrekiko ditugun harremanetan euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea.

NOLA LORTU:

Ahozko harremanak

- Beste administrazioetako eta erakundeetako kideekin hizketan, ahal dugun neurrian, lehen hitza eta esaldia euskaraz esango ditugu eta ahal den neurrian, harreman hauek euskaraz izatea sustatuko dugu.
- NEIKEReko kide batek euskaraz jardun nahi duen bezero bat egoki artatzeko gaitasunik ez bada, NEIKEReko beste kide bati laguntza eskatzen salatu da edo idatziz elkar komunikatzeko aukera eskal-
niko dio.

Idatzizko harremanak

- Fakturak, aurrekontuak, emate-agiritak, gordailuak eta horrelako dokumentuak lehenengo euskaraz eta jarraituan gaztelaniz egongo dira, ahal den neurrian.
- Harremanak euskaraz izateko eskatu duten erakunde publikoiei eta pribatuiei euskaraz edo elebitan erant-
zango zaie. NEIKER dokumentu igorlea denean EAeko beste administrazioekin harremanetan, euskaraz edo elebitan idaztea lehenetsiko da.
- Txosten teknikoetan euskararen gutxieneko presentzia bermatuko da. Ahal den neurrian, izenburu eta laburpena ere euskaraz izango dira.
- ITZULI Itzultzaile automatikoaren erabilera sustatuko da eta langile guztiek eskuragarri dute EUSKARA BATZORDEAK abian jarri duen LAGUNTZA KANALA.

Hornitzaile eta kanpo kontratazioak

- Hornitzaile eskaldunak identifikatuko dira. Ahal dela, hornitzaile eskaldunekin lan egongo da, bereziki, barneko lan hizkuntzan eragiten duen zerbitzua ematen duten hornitzaileekin kasuan. Lizitazio eta kontra-
tazioetan euskaraz erabakirik hartzeko irizpide bezala kontuan hartzen hasiko da.

AHOLKUAK:

- Bezero eta aliatuei egin duten hizkuntza hautuan ahoz erantzuteko gaitasunik ez badugu, harremana idatziz egitea eskatuko diogu. Euskaraz Batzordeak abian jarri duen LAGUNTZA KANALA erabili dezakegu laguntza eskatzeko.

GOGOAN IZAN:

- NEIKEReko langileen artean ezagutza erabilera baino altuagoa da. Gaitasun linguistikoen garapenak gure hizkuntza ofizial biren normalizazioaren bidea erraztu egongo duela kontuan hartu.